

ETORKINEN ZENTROETARAKO AHOLKUAK

- ✓ Ebola birusaren egungo agerraldiak Afrika Mendebaldeko ondorengo herrialde hauei eragiten die: Ginea Konakry, Liberia, Sierra Leona, eta Kongoko Errepublika Demokratikoko Ekuador probintzia.
- ✓ Ebola infekzio biriko bakan baina larri bat da; pertsona kutsatu baten odola edo gorputzeko jariakinak ukitzeagatik transmititzen da. Ez da aire bidez transmititzen. Inkubazio aldia 2 eta 21 egun artekoa izan ohi da.
- ✓ Gaixotasunaren eraginpeko lurralde batean kutsatutako pertsona bat gure herrialdera iristeko probabilitatea oso urria da.
- ✓ Eraginpeko lurraldeetatik datorren pertsona bat, gaixotasunaren sintomarik ez baldin badu, ez da infekziosoa eta ez zaizkio bere ohiko aktibitateak mugatu behar.
- ✓ Nolanahi ere, aipatutako herrialde horietakoren batetik datorren norbaitek, 21 eguneko epean, sukarra baldin badu, osasun balorazio bat beharko du eta, horretarako, Larrialdi Zerbitzuetara (112) deituko du.
 - ✓ Garrantzitsua da, osasun-langileekin harremanetan dagoenean, gaixo dagoela esatea eta inplikaturako lurralde horietakoren batetik datorrela zehaztea.
 - ✓ Anbulantzia etorri zain dagoen bitartean, gaixoak beste pertsonetatik bereizita egon behar du, eta ahalik eta pertsona gutxien izango du ondoan.
- ✓ Ebola birusaren susmagarri diren kasuetarako jarduketa-protokoloa behin aktibatu denean, Osasun Publikotik emango dira jarraibideak.

2014ko urriaren 31n onartua

Batzordearen Idazkaritza